

BIZIKLETA



Bizikleta terminoa 1860ko hamarkadan Frantzian sortu bazen ere, aurretik bizikletaren aurrekaritzat jo daitezkeen gailuak asmatu ziren. XVIII. mendean zehar gizakiaren hanken indarrez mugitzen ziren lau gurpiletako gurdiak eraiki ziren, baina egungo bizikletaren parekotzat jo daitekeen lehenengo gailua Karl Drais alemaniarrek 1813an asmatutako gailua izan zen, draisienne izenekoa, bi gurpilekoa baina pedalik gabekoa eta gailua hankaz aurrera bultzatuz mugitzen zena. Berak belozipedo izena eman zion, gerora 1870eko hamarkadara arte gizakiaren hankaren indarrez mugitzen ziren gailu guztiak izendatzeko termino moduan erabiliko zena. Bizikletaren lehenengo aurrekaritzat jo daitekeen gailu honek oso zabalkuntza eskasa izan zuen, ordea, bere asmatzaileak ibilbide luzeak ere egin zitezkeela frogatzeko ahaleginak egin zituen arren eta parke eta lorategietan bakarrik erabili zen.

GALDERAK

- Non sortu zen bizikleta terminoa?
- Nork asmatu zuen lehenengo gailua?
- Nolakoa izan zen hasieran bere zabalkuntza?
- Non erabiltzen zen hasieran?
- Zein izen eman zioten lehenengo bizikletari?